

## 4

### Kapital higigarriaren etekinak

- 4.1 Zer dira kapital higigarriaren etekinak?
- 4.2 Zer dira gauzen bidezko etekinak?
  - 4.2.1 Gauzen bidezko etekinen kontzeptua
  - 4.2.2 Nola baloratzen dira?
  - 4.2.3 Nola integratzen dira oinarri ezargarrian?
- 4.3 Zeintzuk dira kapital higigarriaren etekin osoak?
  - 4.3.1 Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak
  - 4.3.2 Kapital propioak beste batzuei lagatzeagatik lortutako etekinak
  - 4.3.3 Kapitalizazio eragiketetatik, bizitza edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik eta kapital ezarpenen errentetatik datozen etekinak
  - 4.3.4 Kapital higigarriaren beste etekin batzuk
  - 4.3.5 Etekinen zein portzentaje aitortu behar da?
- 4.4 Zein gastu dira kengarriak?
- 4.5 Nola kalkulatzen da etekin garbia?
- 4.6 Nori egozten zaizkio kapital higigarriaren etekinak?
- 4.7 Noiz egozten dira kapital higigarriaren etekinak?
- 4.8 Nola baloratzen dira zenbatetsitako etekinak?
- 4.9 Eragiketa lotuak



## 4.1 Zer dira kapital higigarriaren etekinak?

**Kapital higigarritik zuzenean edo zeharka eratortzen diren kontraprestazio edo onura guztiak**, diruzkoak, nahiz gauzazkoak izan, hartzen dira kapital higigarriaren etekin osoztat, haien izena edo izaera edozein dela ere. Oro har, kapital higigarriaren etekinak dira, baita ere, higiezintzat kalifikaturik ez dauden gainerako ondasun edo eskubideetatik datozenak, beti ere ondasun edo eskubide horiek zergadunaren titularitza pekoak badira eta zergadunak berak burutzen dituen jarduera ekonomikoetara atxikita ez badaude.

Etekinak zergadunak burutzen dituen jarduera ekonomikoetara atxikitako ondare elementuetatik datozenen (ondasun edo eskubideetatik), jarduera ekonomikoaren etekintzat hartzen dira<sup>39</sup>, ez kapital higigarriaren etekintzat.

Bereziki, **honako hauek dira kapital higigarriaren etekin osoak**:

- **Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak**: dibidenduak, bazkide izateak dakartzan onurak,...
- **Kapital propioak beste batzuei lagatzeagatik lortutako etekinak**: interesak, letrak, ordaindukoak, deskontura jaulkitako tituluak...
- **Kapitalizazio eragiketetatik, bizitza edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik eta kapital ezarpenen errentetatik datozen etekinak.**
- **Kapital higigarriaren beste etekin batzuk**: ondasun higigarrien errentamenduak, errentak, kapitalizazio eragiketak, jabetza industrial eta intelektuala, irudi eskubi-deak...

Honako hauek, ordea, **ez dira kapital higigarriaren etekinak**:

- Entitateak banatzen dituen dibidenduak eta mozkin partaidetzak, baldin eta horiek sortu diren zergaldietan entitate banatzaileak ondare sozietateen erregimenean tributatu badu.
- Zergadunak bere ohiko **jarduera ekonomikoaren** barruan burututako eragiketen prezioa geroratu edo zatikatzeagatik lortutako kontraprestazioa, dagokion kontzeptuarengatik ere tributatzera behartzen duena.
- **Akzio liberatuak** (dohaineoak) ematetik datozen etekinak.
- **Laguntza teknikitik** datozenak, baldin eta laguntza hori jarduera ekonomiko bat egiten duten zergadunak ematen badute eta prestazioa haien jardueraren barruan egiten bada.
- Kapital zabalketetan **lehenetsuneko harpidetza eskubideak** saltzea (beren tratamendu fiskalarekin jarraitzen dute ondare irabazi edo galeren barruan).
- Zergadunaren heriotza dela-eta musu truk egindako eskualdaketatik datozenak, eskualdatutakoa besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea adierazten duten aktiboak direnean.

## 4.2 Zer dira gauzen bidezko etekinak?

### 4.2.1 Gauzen bidezko etekinen kontzeptua

Gauzen bidezko etekintzat jotzen dira **ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak dohainik edo merkatuko ohiko prezioetik behera nork bere xedeetarako erabili, kontsumitu edo lor-**

**tzea**, nahiz eta ematen dituenarentzat gastu erreala ez izan (adibidez, zergadunak etxetresnak, bidaiak, etab. jasotzea diru kopuru jakin batzuk epe finkora jartzeagatik).

Etekinak ordaintzen dituenak eskudirutan ematen dizkionean zenbatekoak zergadunari honek ondasun, eskubide edo zerbitzuak eros ditzan, diruzko etekintzat hartuko dira.

### 4.2.2 Nola baloratzen dira?

Gauzen bidez jasotzen diren errentak **merkatuan duten ohiko balioaren arabera** baloratzen dira oro har.

### 4.2.3 Nola integratzen dira oinarri ezargarrian?

Gauzen bidez jasotzen diren errentak oinarri ezargarrian integratzeko, gauzako ordainketaren balorazioa eta hari dago-kion konturako sarrera batu behar dira, sarrera horren zenbateko errenta jaso duenari jasanarazi ez bazaio beti ere. Kasu horretan, errenta jaso duenak gauzako ordainketaren balorazioa bakarrik integratuko du oinarri ezargarrian, konturako sarrera gehitu gabe.

## 4.3 Zeintzuk dira kapital higigarriaren etekin osoak?

4.1 apartatuan adierazi dugun bezala, kapital higigarriaren etekin osoak ondoko hauek dira:

### 4.3.1 Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak

Kategoria honen barruan ondorengo etekinak sartzen dira, diruzkoak nahiz gauzazkoak izan:

1. Dibidenduak, batzarretara joateko primak eta mozkin partaidetzak.
2. Era guztietako aktiboetatik (ondasun eta eskubideetatik) datozen etekinak, baldin eta aktibo horiek, estatutuen arabera edo sozietateko organoen erabakiz, entitatearen irabazietan, salmentetan, eragiketetan, sarrere-tan edo antzeko kontzeptuetan parte hartzeagatik lortutako ematen badute lan pertsonalaren ordainketarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik. Akzio liberatuak ematea ez da etekin horien artean sartuko.
3. Entitatearen fondo propioetan dagoen partaidetza adierazten duten balore edo partaidetzak erabili edo gozatzeko eskubideak eratu edo lagatzeagatik lortutako etekinak, beren izena edo izaera edozein dela ere.
4. Entitate batetik jasotako beste edozein onura, bertako bazkide, akziodun, asoziatu edo partaide izateagatik.
5. Akzio edo partaidetzen jaulkipen primaren banaketa. Lortutako zenbatekoak eragindako akzio edo partaidetzen eskurapen balioa gutxituko du, deuseztatu arte, eta handik atera daitekeen soberakina kapital higigarriaren etekin gisa zergapetuko da.
6. Kapital murrizpenaren xedea ekarpenak itzultzea denean, honen zenbatekoak edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatuko ohiko balioak ukitutako balore edo partaidetzen erosketa balioa gutxituko du, hura deuseztatu arte. Gerta litekeen soberakina kapital higigarriaren etekin gisa integratuko da eta edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortu dela joko da. Integrazioa jaulkipen primen banaketarako ezarritako era berberari jarraiki egingo da, kapital murrizpena banatu gabeko mozkinen ondorio denean izan ezik. Horrelakoetan, kontzeptu honengatik jasotzen diren kopuru guztiak dibidenduak, batzarretara joateko primak

<sup>39</sup> Ikus 5. kapitulua, "Jarduera ekonomikoaren etekinak" izenekoa.

eta edozein motatako entitateen mozkin-partaidetzak bezala zergapetuko dira. Ondorio horietarako, kapital murrizpenek, beren xedea zeinahi dela ere, banatu gabe-ko mozkinetatik ez datorren kapital sozialaren zatiari lehenik eragiten diotela ulertuko da, eta hala izango da kapital sozialaren zatia deuseztatu arte.

1. eta 2. apartatueta aipatzen diren dibidenduak eta mozkin-partaidetzak ez dira zergaldiko errentan sartuko, horiek sortu diren zergaldietan entitate banatzaileak ondare sozietateen araubideari jarraituz tributatu badu.

Puntu honetan xedatutakoa aplikatzen da kontuan hartu gabe zein entitatek banatzen dituen ondare sozietateek lortutako mozkinak, noiz banatzen diren mozkin horiek, eta zein zerga araubide aplikatzen zaien une horretan entitate horiei.

8. Ekitaldietako mozkin edo erreserbetatik datozen dibidendu kobratuak ez dira zergaldiko errentan sartuko, horiek banatzen dituen entitateari Higiezin Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen zerga erregimena aplikatu baldin bazaio.

Autolikidazioa aurkezteko unean, erregimen horretarako exijitutako baldintzak sozietateak betetzen ez dituenean ere aplikatuko da puntu honetan xedatutakoa. Baldintza horiek gerora betetzen ez badira, zergadunak autolikidazio osagarria aurkeztu beharko du baldintzak betetzen ez diren egunetik hasi eta horiek bete gabe gelditu diren zergaldia autolikidatzeko epea amaitu bitartean.

### 4.3.2 Kapital propioak beste batzuei lagatzeagatik lortutako etekinak

Era guztietako kontraprestazioak, diruzkoak nahiz gauzakkoak, hartzen dira halakotzat, bere izena edo izaera edozein dela ere. Kontraprestazio horiek interesak izan daitezke, baina baita **dirua lagatzearen truke ordainsari modura adostutako beste edozein ordainketa mota** ere.

Kategoria honen barruan sartzen dira, halaber, besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea adierazten duten era guztietako aktiboak eskualdatu, itzuli, amortizatu, trukatu edo bihurtzeagatik lortzen diren errentak.

Dena den, zergadunaren heriotzagatik besteren kapitalak erakarri eta erabiltzeko aktiboak musu truke eskualdatzen direnean kapital higigarriaren etekinik ez dagoela ulertzen da.

**ERNE:** era guztietako aktibo finantzarioak eskualdatu, trukatu edo amortizatzeak kapitalaren etekinak sortuko ditu beti, ez ondare irabazi edo galerak. Besteren kapitalak eskuratu eta erabiltzea adierazten duten balore negoziagarriak hartzen dira aktibo finantzariotzat, horiek dokumentatzeko era edozein dela ere. Aktibo finantzarioak musu truke eskualdatzen badira zergaduna hil egin delako, ez da kapital higigarriaren inolako etekinik sortzen.

Bereziki, honako hauek hartzen dira kapital propioak beste batzuei lagatzeagatik lortutako etekintzat:

- Edozein igorpen tresna dela-medio lortutako etekinak, merkataritzako eragiketengatik sortutakoak barne, igorpen tresna endosatzen edo eskualdatzen den unetik aurrera, beti ere endosua edo lagapena hornitzaileen kreditu bat ordaintzeko egiten ez bada.
- Era guztietako finantza entitateen kontuetatik jasotzen den kontraprestazioa, bere izena edo izaera edozein dela ere, aktibo finantzarioen eragiketetan oinarritutakoak barne.
- Finantza aktiboan aldi baterako lagapenetatik datozen errentak, berrerosketa itunduta dagoenean.

- Finantza entitate batek bere titularitateko kreditu bat erabat edo zati batean eskualdatu, laga edo transferitzeagatik lortzen diren errentak.

Etekinak **baloreak eskualdatu, itzuli edo amortizatzeagatik** sortzen denean, eskualdaketa, itzulketa edo amortizazio balioaren eta eskuratze edo harpidetze balioaren arteko diferentzia izango da etekina. Aldiz, etekina **baloreak trukatu edo bihurtzearen ondorioz** lortzen denean (adibidez, obligazioak akzioekin trukatzaren direnean), jaso diren baloreen balioa guk eman ditugun baloreen eskuratze balioarekin alderatu beharko da.

Truke edo bihurtzea balioztat jasotzen diren baloreei dagokiena hartuko da.

Etekinak murrizteko, eskuratze eta inorenganitzearen gastu osagarriak ere konputa daitezke, behar bezala frogatzen badira.

Aktibo finantzarioak eskualdatzetik eratorritzen diren etekinak negatiboak badira, eta zergadunak eskualdaketa hori egin aurreko edo ondorengo bi hilabeteetan aktibo finantzarioak eskuratu baditu, etekin negatibo horiek zergadunaren ondarean dauden aktibo finantzarioak eskualdatu ahala (hau da, bere karteratik behin betikoz irten ahala) integratuko dira oinarri ezargarrian.

### Adibidea

2011. urtean 3.005,06 euroko aktibo finantzarioa erosi zenuen, eta 2012ko abuztuaren 2an 2.884,86 eurotan saldu. Aktibo horren erosketagatik 19,53 euroko gastuak izan zenituen. 2012ko irailaren 16an, beste aktibo finantzario homogeneo bat erosi zenuen 3.005,06 euro ordainduz.

#### Aktibo finantzarioaren salmenta

Eskuratze balioa (3.005,06€ + 19,53 €)	3.024,59 €
Eskualdatze balioa	2.884,86 €
<b>Etekin osoa (2.884,86 €- 3.024,59 €)</b>	<b>-139,73 €</b>

Aktibo finantzarioa eskualdatzeagatik sortu den 139,73 euroko etekin negatiboa zergadunaren ondarean jarraitzen duen aktibo finantzarioa eskualdatu ahala integratuko da, salmenta egin ondorengo lehen bi hilabeteetan zergadunak beste aktibo finantzario homogeneo bat erosi duelako.

### 4.3.3 Kapitalizazio eragiketetatik, bizitza edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik eta kapital ezarpenen errentetatik datozen etekinak

Kategoria honen barruan honako etekinak sartzen dira:

- Kapital diferituko aseguruetatik datozenak.
- Berehalako errenten aseguruetatik datozenak, biziarte-koak nahiz aldi baterakoak izan, herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza tituluren bidez eskuratu ez direnean.
- Errenta diferituko aseguruetatik datozenak, biziarteko-ak nahiz aldi baterakoak izan, herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza tituluren bidez eskuratu ez direnean.
- Aldi baterako edo biziarteko errenta iraungiak.

#### a) Kapital diferitua

Kapital diferitu bat kapitalizazio eragiketengatik edo bizitza nahiz elbarritasun aseguru kontratuetatik jasotzen denean, kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko honako eragiketa hau eragingo da: jasotako kapitala ken ordaindu diren primak.

$$\text{Kapital higigarriaren etekina} = \text{jasotako kapitala} - \text{ordaindutako primak}$$

b) Berehalako errentak

Berehalako errentak esaten zaie prima bat ordaintzearen truke berehala eta aldian-aldian jasotzen hasten direnei. Errentak urte kopuru jakin batean zehar jaso daitezke (horrelakoetan, aldi baterako errentak izango dira) edo, bestela, errentaduna bizi den bitartean (biziarteko errentak).

Zergadunak hainbat urtetan zehar jasotzen duen errentak bi osagai ditu. Batetik, emandako kapitalaren zati bat berreskuratzen da eta, bestetik, kapital hori emateagatik ordaintzen diren interesak lortzen dira apurka-apurka. Horrexegatik sartzen da etekin oso bezala ekitaldi bakoitzean lortzen den errentaren zati bat. Eta arrazoi berberagatik, desberdina izaten da etekintzat hartzen den portzentajea, kontuan hartu baitaiteke errentadunak errenta eratzen den unean duen adina edo, bestela, errenta jasoko den urte kopurua.

- **Berehala jasotzen diren biziarteko errentak.** Errenta bat zergadun baten alde eratzen denean, kapitalaren etekin osoak konputatzeko ez da kontuan hartu behar jasotako errentaren zenbateko osoa, haren portzentaje bat baizik. Logikoki, errentaduna zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta handiagoa izango da portzentajea, haren bizi itxaropena luzeagoa denez gero, eta, beraz, denbora gehiagorako emango du kapitala, errentagarritasun handiagoa lortuko duelarik.

Adina	%
40tik behera	40
40 eta 49 bitartean	35
50 eta 59 bitartean	28
60 eta 65 bitartean	24
66 eta 69 bitartean	20
70 urte edo gehiago	8

**ERNE:** portzentaje horiek errenta eratzean errentadunak duen adinari dagozkie, eta aldaketarik gabe jarraituko dute errenta indarrean dagoen bitartean.

- **Berehala jasotzen diren aldi baterako errentak.** Iraupen jakineko errenta bat prima bat ordaintzearen truke eratzen denean, urtean jasotzen diren errenten portzentaje bat bakarrik integratzen da zergan, biziarteko errentetarako aipatu dien arrazoi berberengatik. Kontratuaren iraupenak erabakiko du portzentajea eta ez da aldatuko indarrean dagoen bitartean. Iraupena zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta handiagoa izango da portzentajea.

Errentaren iraupena	%
5 edo gutxiago	12
5 baino gehiago eta 10 edo gutxiago	16
10 baino gehiago eta 15 edo gutxiago	20
15 baino gehiago	25

Adibidea

150.253,03 euroko prima ordaindu zenuen berehalako errenten aseguru bat kontratatzeke. 25 urtez aldi baterako errenta bat jasotzea zen helburua. Aseguru etxeak %3,5eko tasa aplikatu dio.

Urtean 9.114,84 euroko errenta jasoko duzu.

Hona hemen kapital higigarriaren etekina urte bakoitzeko:

Urteko errenta	9.114,84 €
Integrazio portzentajea (15 urtetik gorako iraupena duen errenta)	%25
<b>Kapital higigarriaren etekin osoa</b>	<b>2.278,71 €</b>

c) Errenta diferituak

Errenta diferituak biziartekoak edo aldi baterakoak izan daitezke, berehalakoak bezalaxe. Diferentzia bakarra honetan datza: errenta diferituetan, primak errentak jasotzen hasten diren ekitaldia baino lehen ordaindu behar direla. Kapital higigarriaren etekinak kalkulatzeko, berehalako errenten kasuan aurreikusitako diren portzentajeak aplikatu behar dira lehenik, eta hortik ateratzen den zenbatekoari errenta eratu arte lortu den errentagarritasuna gehitu. Errentagarritasuna honela kalkulatu da: eratzen den errentaren uneko balio finantzario-aktuarialari ordaindu diren primak kendu behar zaizkie. Errentagarritasuna linealki banatuko da biziarteko errenta kobratzen den lehen 10 urtetan zehar. Aldi baterako errenta bat izanez gero, linealki banatuko da bere iraupen urteen artean, eta 10 urtez gehienez.

Errentak dohaintzaz edo doan eta inter vivos egindako beste edozein negozio juridiko bidez eskuratu direnean, kapital higigarriaren etekina kalkulatu da, bakar-bakarrik, berehalako errentetarako aurreikusita dauden portzentajeetatik urteko zenbateko bakoitzari dagokiona aplikatuta.

Adibidea

Errenta diferituko aseguru bat kontratatzeagatik, 10 urtez 3.005,06 euroko ekarpina egin duzu urtero. Epe hori igaro ondoren, urtean behin 4.666,77 euroko aldi baterako errenta bat hasi zara jasotzen. Errenta hori 10 urtez jasoko duzu.

%4,5eko interesa aplikatzen badugu, eratzen den errentaren uneko balio finantzario-aktuariala 36.926,81 eurokoa da.

Errentagarritasun diferitua:

Errentagarritasun diferitua kalkulatzeko, eratzen den errentaren uneko balio finantzario-aktuarialetik ordaindu diren primak kendu behar ditugu.

Errentaren uneko balio finantzario-aktuarialaren balioa	36.926,81 €
Ordaindutako primak (3.005,0€ x 10 urte)	- 30.050,60 €
Errentagarritasun diferitua	6.876,21 €

Aldi baterako errenta bat denez, errentagarritasun diferitua iraupen urteen artean banatuko da (10 urte).

$$6.876,21 \text{ €} / 10 \text{ urte} = 687,62 \text{ euro/urteko}$$

Urtean jasoko den errenta:

Urtean 4.666,77 euroko errenta jasoko duzu.

Hona hemen kapital higigarriaren etekina urte bakoitzeko:

Urteko errenta	4.666,77 €
Integrazio portzentajea (5 urtetik gorako eta 10 urte edo hortik beherako iraupena duen errenta)	%16
<b>Etekin osoa</b>	<b>746,68 €</b>

**Kapital higigarriaren etekin osoa:**

Urteko zenbatekoa (urteko errentaren %16)	746,68 €
Urteko errentagarritasun diferitua	687,62 €
<b>Kapital higigarriaren etekin osoa (746,68 € + 687,62 €)</b>	<b>1.434,30 €</b>

Dena den, badago erregimen berezi bat jubilazio eta elbarritasun prestazioei aplikatzen zaiena bizitza edo elbarritasun aseguru kontratuen onuradunek errenta moduan jasotzen dituztenean. Kontratu horiek ez dute inolako zer ikusirik eduki behar gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin sinatzen diren aseguru kontratuekin edo enpresek pentsio gaietan hartutako konpromisoak betetzeko izenpetzen dituzten kontratu kolektiboekin (hau da, pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak<sup>40</sup> lehen xedapen gehigarrian eta berau garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera izenpetzen direnekin). Kasu horretan, prestazio horiek kapital higigarriaren etekin gisa integratuko dira zergaren oinarri ezargarrian, horien zenbatekoa kontratugatik ordaindutako primak baino handiagoa den unetik aurrera, eta errentak eskuratu badira dohaintzaz edo doan eta inter vivos egindako beste edozein negozio juridiko bidez, prestazio horiek errenten eraketa uneko balio aktuariala baino handiagoak direnean integratuko dira oinarrian. Horrelakoetan, beraz, berehalako errentetarako aurreikusi diren portzentajeak ez dira aplikatuko. Erregimen berezi hau aplikatu ahal izateko, bi baldintza bete behar dira:

- Aseguru kontratuaren horniduretan inolako mobilizaziorik egon ez izana bere indarraldian zehar.
- Jubilazio prestazioen kasuan, aseguru kontratua gutxienez jubilazio eguna baino bi urte lehenago egin izana.

Horrez gain, bi baldintza hauek bete beharko dira:

- Prestazioak Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak<sup>41</sup> 8.6 artikuluan aipatzen dituen kasuetan bakarrik jaso daitezke, pentsio plan eta fondoetarako ezarritakoari jarraiki.
- Aseguru kontratuaren horniduretan mobilizazioaren bat izan dela ulertuko da Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak<sup>42</sup> lehen xedapen gehigarrian eta berau garatzen duen araudian eskubide ekonomikoak erabiltzeari buruz ezartzen dituen mugak betetzen ez direnean, enpresek pentsio gaietan hartutako konpromisoak betetzeko izenpetutako aseguru kolektiboek dago-kienez.

**Adibidea**

Demagun errenta diferituko aseguru bat kontratatu duzula eta jubilazio adinera iritsi arte 3.005,06 euroko ekarpena egin duzula urtero (10 urtez egin duzu ekarpena). Urte horiek igaro ondoren, urtean behin 4.666,77 euroko aldi baterako errenta hasi zara jasotzen 10 urtez.

%4,5eko interes tasa aplikatzen badugu, eratzten den errentaren uneko balio finantzario-aktuariala 36.926,81 eurokoa da.

**Erregimen orokorra** lehen adierazi duguna izango litzateke:

<sup>40</sup> Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.  
<sup>41</sup> Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.  
<sup>42</sup> Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

Errentagarritasun diferitua kalkulatzeko, eratzten den errentaren uneko balio finantzario-aktuarialetik ordaindu diren primak kendu behar ditugu.

Errentaren uneko balio finantzario-aktuarialaren balioa	36.926,81 €
Ordaindutako primak (3.005,06€ x 10 urte)	- 30.050,60 €
Errentagarritasun diferitua	6.876,21 €

Aldi baterako errenta bat denez, errentagarritasun diferitua iraupen urteen artean banatuko da (10 urte).

6.876,21 € / 10 urte = 687,62 euro/urteko

Urtean 4.666,77 euroko errenta jasoko duzu.

Hona hemen kapital higigarriaren etekina urte bakoitzeko:

Urteko errenta	4.666,77 €
Integrazio portzentajea (5 urtetik gorako eta 10 urte edo hortik beherako iraupena duen errenta)	%16
<b>Integratu beharreko errenta (776.485ren %25)</b>	<b>746,68 €</b>

Urteko zenbatekoa (urteko errentaren %25)	746,68 €
Urteko errentagarritasun diferitua	687,62 €
<b>Kapital higigarriaren etekin osoa (746,68 € + 687,62 €)</b>	<b>1.434,30 €</b>

**Erregimen berezian**, ordea, ez duzu ordaindu behar harik eta jasotako errenten zenbatekoa (4.666,77 euro) ordaindutako primen batura (30.050,60 euro) baino handiagoa izan arte.

Urtea	Urtean jasotako errenta	Ordaindutako primen batura	Oinarri ezargarrian sartu beharreko zenbatekoa
1	4.666,77 €	30.050,60 €	0 €
2	4.666,77 €	25.383,83 €	0 €
3	4.666,77 €	20.717,06 €	0 €
4	4.666,77 €	16.050,29 €	0 €
5	4.666,77 €	11.383,52 €	0 €
6	4.666,77 €	6.716,75 €	0 €
7	4.666,77 €	2.049,98 €	2.616,79 €
8-10	4.666,77 €	0 €	4.666,77 €

Erregimen berezi hau aplikatu ahal izateko honako baldintzak bete behar dira:

- kontratua erretiroa hartu baino gutxienez bi urte lehenago egitea.
- prestazioak honako egoera hauek direla-eta kobratzea: erretiroa edo antzeko egoeraren bat, ohiko lanerako ezintasun iraunkor osoa, edozein lanerako erabateko ezintasun iraunkorra, eta partaidearen edo onuradunaren heriotza.
- aseguru kontratua indarrean egon den bitartean horniduretan mobilizaziorik ez egotea.

*d) Aldi baterako edo biziarteko errentak irautitzea.*

Herentzia, legatu edota beste edozein ondorengotza-tituluren bidez eskuratu ez diren aldi baterako edo biziarteko errentak irautitzearen bidez erreskate eskubidea erabiltzeagatik, eragiketaren kapital etekinak eskubidea erabiltzen den unean kalkulatu dira. Kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko, erreskatearen zenbatekoari batu behar zaizkio momentu horretara arte ordaindutako errentak eta, ondoren, baturatik kendu behar dira

ordaindutako primak eta apartatu honetako aurreko puntuen arabera kapital higigarriaren etekin gisa zergapetu diren diru kopuruak. Errentak dohaintzaz edo doan eta inter vivos egindako beste edozein negozio juridiko bidez eskuratuak badira, errentak eratu arte metatutako errentagarritasunaren zenbatekoa ere kenduko da.

**ERNE:** aldi baterako edo biziarteko errenta heriotzagatik iraugintzen denean, ez da etekinik izango errentadunarentzat.

#### 4.3.3.1 Biziarteko eta aldi baterako errentei aplikatzen zaien erregimen iragankorra

##### 1. Biziarteko eta aldi baterako errentak 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu direnean

Biziarteko eta aldi baterako errentetatik, berehalakoak nahiz diferituak izan, zein zati hartuko den kapital higigarriaren etekintzat kalkulatzeko, posible izango da 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta moduan jasotzen diren prestazioei berehalako errentetarako aurreikusitako portzentajeak bakarrik aplikatzea, baldin eta errenta horiek 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu badira.

Biziarteko errenten kasuan, portzentaje horiek aplikatuko dira errenta eratzeko unean hartzaileak duen adinaren arabera, edo errentaren iraupen osoaren arabera, aldi baterako errentak baldin badira.

Biziarteko eta aldi baterako errentetatik, berehalakoak nahiz diferituak izan, zein zati hartuko den kapital higigarriaren etekintzat kalkulatzeko, posible izango da 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta moduan jasotzen diren prestazioei berehalako errentetarako aurreikusita dauden portzentajeak aplikatzea, baldin eta errenta horiek 1999ko urtarrilaren 1etik 2006ko abenduaren 31ra bitartean eratu badira.

Biziarteko errenten kasuan, portzentaje horiek aplikatuko dira errenta eratzeko unean hartzaileak duen adinaren arabera, edo errentaren iraupen osoaren arabera, aldi baterako errentak baldin badira.

Hala badagokio, gainera, errenta diferituen kasuan, errenta eratu arte lortutako errentagarritasuna gehituko da.

##### 2. Etekinak 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eraturik biziarteko edo aldi baterako errentak erreskatatzeagatik

1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu diren biziarteko edo aldi baterako errentak erreskatatzen badira, erreskatearen ondorioz sortzen den kapital higigarriaren etekina errenta eratu arte lortutako errentagarritasuna kenduz kalkulatu da.

#### 4.3.4 Kapital higigarriaren beste etekin batzuk

Kapital higigarriaren etekintzat ondoko hauek ere hartzen dira, diruzkoak nahiz gauzazkoak izan:

- **Jabetza intelektualetik** datozenak, autorea zergaduna ez denean (autoreek jaso badituzte, jarduera profesionalen etekintzat hartzen dira).
- **Jabetza industrialetik** datozenak, beti ere jabetza hori zergadunak egiten dituen jarduera ekonomikoei atxikita ez badago (lizentziak ematen dituen inbentorea bera denean, jasotako kontraprestazioa jarduera profesional batetik eratorritako sarreratzat hartuko da).
- **Laguntza teknikoa emaketik** datozenak, laguntza edo prestazioa jarduera ekonomiko baten barruan ematen denean izan ezik.

- **Ondasun higikor, negozio edo meategiak errentan emaketik** datozenak, bai eta **azpierrementamendua** dela eta azpierrementatzaileak jasotakoak ere, beti ere jarduera ekonomikorik osatzen ez dutenean.
- **Irudia ustiatzeko eskubidea lagaztetik** edo irudia erabiltzeko onarpen edo baimenetik datozenak, salbu eta etekin horiek irudia ustiatzeko eskubidea sortzen duenak berak eskuratzen baditu edo jarduera ekonomiko baten baitan sortzen badira.

#### 4.3.5 Etekinen zein portzentaje aitortu behar da?

Kapital higigarriaren etekin osoa aurreko apartatueta zehaztutako etekin guztiek osatuko dute oro har. Hala eta guztiz ere, ondorengo kasuetan, kapital higigarriaren etekin osoa lortzeko, etekin horien zenbateko osoari portzentaje jakin batzuk aplikatuko zaizkio eta, horren ondorioz, gainerakoa oinarri ezargarritik kanpo geldituko da, hau da, ez da zergapetuko. Adibidez, bi urtetik gorako epean sortutako kapital higigarriaren etekinetik %60 integratuko dela esaten badugu, horrekin esan nahi da gainerako %40a ez dela aitortu behar. Hona hemen aipatu portzentajeak:

##### a) 4.3.4 apartatuko etekinak, bi edo bost urtetik gorako epean lortutakoak

Kapital higigarriaren etekinak, aurreko 4.3.4 apartatueta jasotakoetatik eratorriak, bi urtetik gorako epean sortu badira, **%60** integratuko da, eta bost urtetik gorako epean sortuak badira, berriz, **%50**.

**ERNE:** sorrereldia bi urtetik gorakoa dela agerian egon arren, ezin bada zehatz-mehatz finkatu, hiru urtekoa dela joko da.

Sorrereldia	Integrazio %
+2 urte	60
+5 urte	50

Bi urtetik gorako epean sortutako kapital higigarriaren etekinak **zatika jasotzen direnean**, honako eragiketa hau egingo da: sorrereldiko urteak, datatik datara konputatuak, zati etekinak zatikatu diren zergaldien kopurua:

$$X = \frac{\text{Etekinak zenbat urtetan sortu diren}}{\text{Etekinak zatikatu diren zergaldien kopurua}}$$

- Emaizta bi urtetik gorakoa bada, %60ko portzentajea aplikatuko da.
- Emaizta bost urtetik gorakoa bada, %50eko portzentajea aplikatuko da.

#### Adibidea

2008ko urtarrilaren 1ean merkataritza-lokal baten errentamendu kontratua formalizatu zenuen, 2012ko urtarrilaren 2an amaitu dena. 24.000,00 euroko alokairua hitzartu zenuen, eta kontratua behin amaituta jaso duzu zenbatekoa.

Jasotako zenbatekoa	24.000,00 €
Integrazio portzentajea	%60
<b>Etekin osoa (24.000,00 € x 0,60)</b>	<b>14.400,00 €</b>

**b) Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak**

Kapital higigarriaren etekinak denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat kalifikatzen direnean, haien %50 integratuko da.

Kapital higigarriaren honako etekin hauek bakarrik hartzen dira denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat, beti ere zergaldi bakar bati egozten bazaizkio:

- Errentamendu kontratua traspasatu edo lagatzeagatik lortutako kopuruak.
- Errentamendu kasuetan, kalteak direla-eta errentari edo azpierreantariarengandik jasotako kalte-ordainak.

**1999ko urtarrilaren 1a baino lehen ondare gehikuntzak edo gutxipenak sortu dituzten bizitza aseguru kontratuen erregimen iragankorra**

Kapital geroratu bat jasotzen denean, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako etekin garbi osoan<sup>43</sup> 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako primei dagokien zatiak %14,28ko murrizpena izango du prima ordaindu zenetik 1994ko abenduaren 31ra bitartean igarotako urte bakoitzeko, goitik biribilduta.

Etekin garbi osotik murriztu beharreko zenbatekoa honela kalkulatu da:

1. Zehaztu beharko da zein zati dagokion etekin garbi osotik 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako prima bakoitzari. Lortutako etekin osotik aseguru kontratuko prima bakoitzari zein zati dagokion kalkulatzeko, etekin oso hori zatiketa honetatik ateratzen den ponderazio koefizientearekin biderkatuko da:
  - Zatikizun gisa, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako urte kopurua primarekin biderkatuz ateratzen den emaitza.
  - Zatitzaile gisa, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako urte kopurua prima bakoitzarekin biderkatuz ateratzen diren biderkaduren batura.
2. 1994ko abenduaren 31 baino lehenago ordaindutako prima bakoitzari dagokion zati bakoitzerako, etekin garbi osotik zehaztu beharko da, baita ere, zein zati sortu den 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen. Egun hori baino lehenago sortu den zatia kalkulatzeko, aurreko 1. zerbakian adierazitako eragiketarik 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako prima bakoitzerako ateratzen den zenbatekoa ondoko zatiketarik ateratzen den ponderazio koefizientearekin biderkatuko da:
  - Zatikizun gisa, prima ordaindu zenetik 2007ko urtarrilaren 1era arte igarotako denbora.
  - Zatitzaile gisa, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako denbora.
3. Etekin garbi osotik kendu beharreko zenbatekoa zehaztuko da. Horretarako, etekin garbi osoaren zatietako bakoitza, aurreko 2. zerbakian xedatutakoaren arabera kalkulatu, %14,28 murriztuko da dagokion primaren ordainketatik 1994ko abenduaren 31ra arte igarotako urte bakoitzeko. Bi data horien artean sei urte baino gehiago igaro baldin badira, aplikatu beharreko portzentajea %100 izango da.

LABURPENA: Integrazio portzentajeak	%
Oro har	100
Bi urtetik gorako apean sortutako etekinak (ikus 4.3.4)	60
Bost urtetik gorako epean sortutako etekinak (ikus 4.3.4)	50
Denboran zehar era irregularrean lortutako etekinak	50

**ERNE:** prestazioak errenta moduan jasotzen direnean, integrazio portzentaje horiek ez zaizkie aplikatzen.

**4.4 Zein gastu dira kengarriak?**

Etekinak lortzen badira laguntza tekniko emateagatik edo ondasun higigarri, negozio edo meategiak errentan zein azpierreant jartzeagatik, etekin osoetatik kendu daitezke haiek lortzeko beharrezkoak izan diren gastuak, eta, hala badagokio, diru sarreraren iturri diren ondasun edo eskubideek jasandako hondamenaren zenbatekoa. Hau da, etxebizitzetatik ez datozen kapital higiezinaren etekinei dagozkien gastu berdina izango dira kengarriak, bai eta **saldo kobragaitzak** ere, betiere zirkunstantzia hori behar bezala justifikatuta badago. Bi kasu hauetan jotzen da justifikatutzat zirkunstantzia hori:

- Zorduna konkurtso egoeran dagoenean.
- Zergadunak kobratzeko egin duen lehen saialditik zergaldiaren amaiera bitartean sei hilabete baino gehiago igaro direnean krediturik berritu gabe.

**ERNE:** saldo kobragaitza kenkaria egin ondoren kobratzen bada, sarrera bezala aitortuko da kobratzen den ekitaldian.

**4.5 Nola kalkulatu da etekin garbia?**

Kapital higigarriaren etekin garbia etekin osoen batura izango da, **salbu eta etekin horiek laguntza tekniko emateagatik edo ondasun higikor, negozio edo meategiak errentan zein azpierreant jartzeagatik lortu badira**, horrelakoetan bi hauek kendu beharko baitira: haiek lortzeko beharrezkoak izan diren gastuak, eta, hala badagokio, diru sarreraren iturri diren ondasun edo eskubideek jasandako hondamenaren zenbatekoa.

**4.6 Nori egozten zaizkio kapital higigarriaren etekinak?**

Kapitalaren etekinak, etekin horien sorburu diren ondare elementuen, hau da, ondasun edo eskubideen titular diren zergadunek lortzen dituztela jotzen da. Ondorengo kasuetan, honela jokatuko da:

- **Titularitatea behar bezala frogatzen ez bada,....**

Ondasun edo eskubideen titularitatea behar bezala frogatzen ez denean, zerga Administrazioak erregistro fiskal batean edo beste edozein erregistro publikotan titular gisa ageri dena hartu ahal izango du halakotzat.

- **Titular bat baino gehiago badago...**

Titular bat baino gehiago dagoenean, bakoitzak titularitatean duen partaidetzaren arabera lortu dituela etekinak ulertuko da. Beraz, kotitular bakoitzak honako hau egin beharko du: lehenik, bere titularitate portzentajea ondasun edo eskubideak sortu

<sup>43</sup> Etekinak kalkulatzeko, kontuan hartu beharra dago abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, IV. titularen IV. kapitulu 3. sekzioan ezarritakoa.



dituen sarrera eta gastu guztiei aplikatu, eta hortik ateratzen den emaitza etekin oso bezala eta gastu kengarri bezala aitortu hurrenez hurren.

- **Senar-emazteen eta izatezko bikoteen kasuan...**

Senar-emazteen edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteen kasuan, ezkontzaren erregimen ekonomikoa edo izatezko bikotearen ondare erregimena arautzen duten xedapenetan hitzartutakoari jarraiki bienak diren ondasun eta eskubideetatik datozen etekinak erdibana egotziko zaizkie, beste partaidetza kuota bat frogatzen denean izan ezik. Aldiz, arau bereber jarraituz ondasun edo eskubideak ezkontide batenak edo izatezko bikoteko kide batenak bakarrik direnean, horietatik datozen etekinak ezkontide horri edo bikoteko kide horri egotziko zaizkio oso-osorik.

#### 4.7 Noiz egotzen dira kapital higigarriaren etekinak?

**Kapital higigarriaren etekinak** jasotzaileak exijitzen dituen zergaldiari egotziko zaizkio.

**Zenbatetsitako errentak** produzitutzat jotzen diren zergaldia-ri egotziko zaizkio.

**Zer egin behar da egoitza atzerrira aldatzen bada?**

Zergadunak atzerrira aldatu badu bere egoitza eta, horregatik, zergadun izateari utzi badio, egotzeko dauzkan errenta guztiak egoitza aldatu aurreko tokian zerga honengatik aitortu behar zuen azken zergaldiko oinarri ezargarrian sartuko dira, errege-lamenduz finkatzen diren baldintzetan. Beharrezkoa izanez gero, aitorten likidazio osagarri bat egingo da, baina zigorrik, berandutza interesik edo inolako errekarurik gabe.

**Eta hiltzen bada?**

Zergaduna hiltzen bada, egotzi gabe gelditu diren errenta guztiak aitortu behar den azken zergaldiko oinarri ezargarrian integratuko dira.

#### 4.8 Nola baloratzen dira zenbatetsitako etekinak?

Ondasun eta eskubideen lagapenak ordainduak izan direla jotzen da.

Etekin zenbatetsien balorazioa **merkatuko ohiko balioaren arabera** egingo da. Merkatuko ohiko balioztat bi subjektu independenteren artean adostuko litzatekeen kontraprestazioa izango da, kontrako frogarik ezean beti ere. Froga bideak zuzenbidean onartzen direnak dira.

**Mailegutan eta, oro har, besteen kapitalak eskuratu edo erabiltzeko eragiketen kasuan**, merkatuko ohiko balioztat zergaldiko azken egunean indarrean dagoen diruaren legezko interes tasa hartuko da.

**ERNE:** 2012. urterako, diruaren legezko interesa %4 izan da.

#### 4.9 Eragiketa lotuak

Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak merkatuko balio normalaren arabera baloratuko dira, Sozietateen gaineko Zergaren araudiak aurreikusitako eran.

Pertsona edo entitate lotuak izan daitezke:

- **Entitate** bat eta bertako **bazkide** edo **partaide**a, baldin eta azken honek duen portzentajea oro har %5ekoa edo handiagoa bada, edo, bestela, %1eko portzentajea duenean sozietatearen baloreak merkatu arautu batean kotizatuz gero.
- **Entitate** bat eta bertako **kontseilari** edo **administratzaileak**.
- **Entitate** bat eta bertako **bazkide**, **partaide**, **kontseilari** edo **administratzaileen ezkontidea**, **maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-laguna** edo **ahaidetasun harreman batengatik lotutako pertsona**. Harreman hori zuzenekoa zein zeharkakoa izan daiteke, odolkidetasunezkoa, ezkontza bidezkoa edo izatezko bikoteak ekar leza-keena, hirugarren mailaraino.
- **Aurreko kasuetako** edozein, **talde bereko entitateekin**.

